
EREIN Argitaletxea
Tolosa etorbidea 107
20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)
Tel.: (+34) 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Atilaren gutizia



Jon Arretxe

Bilduma: Uzta gorria, 41
Formatua: **135 x 205** mm
Orrialdeak: **184**
Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2026-11-22
ISBN-a: 978-84-1093-155-8
Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

22,50 €



Zuriñe Ruiz de Gordoa lortzaile gasteiztarra Zaballako kartzelatik ihes egiten saiatzen den momentuan abiatzen da nobela. Down sindromedun emakume bitxi hau da tramaren ardatza, judoka, inork uste baino burutsuagoa, azkar aberasteko negozioen zalea, arazo larrietan sartzeko berezko joera daukana... Oraingo honetan bere jiteko beste bi lagunekin elkartuko da: Andoni abokatu amarruzalearekin eta Luba kartzelari beldurgarriarekin, eta, euren ekintzen ondorioz, aurre egin beharko diete Gasteizko eta Bilboko droga trafikoa kontrolatzen duten mafiosoei, Bernardo Leza sikario errioxarrari, poliziari eta beste hainbat egoera larri eta arriskutsuri.

Umore klabean idatzitako nobela beltz honetako kokagune nagusiak Gasteizko bazterrak, Bastidako bodega misteriotsu bat eta Bilboko txoko ilunenak dira. Irakurleak gorabeheraz betetako trama original bat topatuko du, erritmo bizkorrekoa, elkarrizketa ugarikoa, ustekabez betetakoa.

NEGOZIO ILUNAK - INKLUSIBITATEA - DOWN SINDROMEA

Jon Arretxe



Euskal Filologian doktorea da, Heziketa Fisikoan lizentziatua, eta Piano eta Kantuko ikasketak ere eginak ditu. Egile polifazetiko eta arrakastatsu honek aspalditik du ogibide idaztea, bere bidaia eta liburuei buruzko hitzaldiak ematen ditu, eta opera kantatzen ere aritu da. Sortu dituen hogeita hamataka liburuen artean, bidaia-narrazioak (*7 kolore, Tubabu, Oroituz, Griot*…), haur eta gazte literatura (*Harresi handirantz, Beti iparralderantz, Trumoiaren alaba, Lurraren taupadak*…) eta nobela beltzak dira nagusi. Azken genero honi dagozkio *Xahmaran, Tangerko Ametsak, Arrutiren banda* eta telesail bihurtu berri diren Touré igarle-ikertzailearen saileko hamaika nobelak, lehenengoa *19 Kamera* eta azkena *Zenbaki gorriak*. *Txerriak eta loreak* ere genero beltzekoa da, euskal *noir* hutsa.

http://www.jonarretxe.net